

GAZTAÑAGA'TAR JESUS ADISKIDEA (G.B.)

BARRI SAMIÑA

Noizean bein zurtz eginda izten gaituen barriak artzen doguz eta olakoa izan zan gau aretan Zubikarai 'tar Augustin'ek emon eustan barria: Gure lankide ta adiskide genduan Gaztañaga'tar Jesus il zala.

Bat-batean, lanerako bidea artzeko berebilla Qertu eukala, agurrik be egin barik, isil-isillik joan jaku~gure Jesus.

Samintasuna be alkar-banatu egin bear izaten da-ta, Bizkai'ko adiskideai barria emon bear izan neutsen: Bilbao 'tar Jon Erramun'eri eta Zubiri 'tar Iñaki'ri. Baita, mendi ta zelai asko bitarte dirala, Benidor'en egun batzuk igaroten egoan Onaindia'tar Santi'ri be. Guztiak geratu ziran zurtz eginda eta samitasunez beterik. Zelan ez!

NOR ZAN

Ez dakit non eta zelan ezagutu neban Jesus adiskidea. Ba-leiteke aurpegiz abadegai-etxean ezagutu izatea, naizta ni baiño sei urte gazteagoa izan. Baiña gero bere entzutea nigana eldu~zan euskera ondo egiten dauan euskaldun baten entzute lez.

Urteetan izan gendun artu emon zabala idazle-lanean, batez be Goiz-Argi aldizkaria argitaratzen zanean.

Geroago Kardaberaz-taidean alkartu Qiñan eta ikas-tolen aide zerbait egin-gura izan ziran batzar batzutan be bai.

Baiña gure artu-emonak sakonak eta zabalak izan ziran EUSKERAZAINZA sortu zanetik. Erakunde onetan lan aundia ta egokia egon eban Jesus 'ek.

ILLETEA

Barri garratz on artu eta urrengo egunean Errexil'era joan giñan. Paulin eta biok, illetan kideko izateko ustez. Sasoiz eldu erri pout aretara eta sakristian alkartu giñan eun abade baiño geiago, Setien'dar Jose Maria Gotzaina eta Pagola'tar Jose Antonio Gotzain Ordezkarri Orokorra geugaz zirala.

Itxaropena biztu bear eta orretarako dei egiten euskuen abestiak eta irakurgaiak eta itzaldiak, baiña ezin

kendu barrutik galtze aundi baten biotz-jausia, ezin norberagandu egun bi edo iru lenago geure artean izan genduan batzarkidea, Jesus, joan jakula eta bere gorpua il-kutxa aretan eroiela illerrira.

Errexil'go eleiza aundia beterik eta gaiñezka egoan eta koruak naiz erriak egokiro abestu eban illetea.

LANAK

Jesus ez da izan geldi egoten dakian gizona, beti lanean ekin-bearrekoa baiño.

Bere lan aundi bat ikastoletan izan da. Nik arlo onetan ezin emon daiket zeaztasun larregirik, baiña ondo litzake beste batek zerbait idaztea.

Beste lan-arlo aundi bat, idazle-lana izan da: aldizkarietan, egunkarietan eta liburugintzan lan aundia egin dau Jesus'ek.

Orrez gaiñera, Jesus batzarretara urreratzen zalea izan da eta sasoiz etorten izan da beti. Batzarretan langille be bai.

Oiñarriko lana, gainera, Jesus'entzat abade-lana izan da. Abade-lana Eleizbarruti-maillan. Nok ez daki zenbat lan egin eban Liturgia euskeratzeko sortu zan talde aretan? Abade-lana, baita, parroketan, batez be askenengoz bere ardurapean izan dauan Errexil'goan.

EUSKERAZAINZAN

Euskerazaintza Erri-Akademia'k ez dau sekula aiztuko Gaztañaga 'tar Jesus euskerazaiña.

Urrengo batzarrean, olakoetan oitura izaten dan lez, Deba'ko eleizan meza baten gogoratuko dogu baiña Jesus'eri omenaldi eder bat egin bear jakola uste dot. Egindako lanak gogoratze eta itzi dauskun eredu ederra ez galtzeko. Non eta noz Erri-Akademiak ikusi bearko dau, Errexil'en bear ba'da ala berak lan egiten izan dauan ikastolan...

Eskerrik asko, Jesus zure adiskidetasunagaitik eta laster arte.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK